

NEKAZARI ERNEGAU BAT.

IPUINA

Michel nekazaria bizi zan erneguz,
Bere suberteagaz ez iñoz soseguz;
Ez eukalako arek beste egarririk,
Aberats izatea munduan bakarrik.
Beti ebillan nundik arto asko artu,
Oi eban auzoetan bai-a zerbait oztu,
Ziñoan: «nik baneuka ondasun naikoa,
»Munduan nintzateke zorionekoa».
Bardin egoanean oyan bere lotan,
Nundik aberastuko ebillan pentsetan,
Itzain bere bazan ta edo noz bidean,
Ebillan gauta egun lana eukanean.
Burdi bat ikatzegaz bein joian olara,
Logureaz zabuka ezin joan zala,
Bildurturik etzin zan ikatzen gañean,
Idiak ez egien artu ankapean.
An bere laster lotan asten da amesetan,
Betiko aberastu zala beñ benetan,
Bilbora etorr Rita ontzi bat eukala,
Beretzako india asko ekartzana.
Urtenda barriz gois-gois bere baserritik,
Gaberako atzera biurtzea gaitik,
Uste eban galopan joiala zaldian,
Aztu zan lo joiala olaruntz burdian;
Ta noz eban sinistu ontzien lekura,

Elduta sartutea dirudun barkura,
Jatsiten zalakoan lurrera zalditik,
Michel ameslaria jausi zan burditik,
Baña jausi ez eze, arturik burdiak,
Erdibitu eutsazan berna-azur biak.
Orduan dazau zelan zoriontasuna,
Gozetako bear dan lenen osasuna,
Eta konturaturik zala kastigua,
Izan eban suberte alako gaiztua,
Diño penaz beterik: «sano banengoke,
»¡Ai! pobre bizi arren kontentu nintzake,
»Osorik daukazanak almen ta zentzunak,
»Kantau lei daukazala aberastasunak.»

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

